

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Basoratzea



ARITZ GALARRAGA

Modu zinez bitxi batez bukatzen du liburua Alice Zenite-rrek: esplikatu, zer eginik ez dagoela uste duen garaian, are idazteko gorputzik ez duenetan, beti dagoela azkenik une bat, zeinean berriz esaten dion bere buruari gauzak egin daitezkeela, egin egin behar direla, eta, hemen bitxi-ena, “eskuarki une horretantxe sartzen zait basoan paseatzera joateko gogo”. Lehen irakurraldian ez zidan atentziorik eman, begia beste gauza batzuetara, baina berehala ohartu nintzen basoari egindako erreferentzia hori, harago ez zihoana, lerratzen zela basoari erreferentzia egin izan dioten beste hainbat idazlerekin –oroi Le Guin bera, eta *Oihan hitzean mundua*–. Miguel Sánchez-Ostiz maitearekin, adibidez, maiz aritu izan baita bakardade, bakartze, basoratzeari buruz, luze gabe, berriki argitaratu duen *Emboscaduras y resistencias* lanean.

Ibilaldiak egitea atsegin du, inguruetakoko basoetan, “garbi baino zikinagoak”; bertako haritzak, amerikarrak, pago kalakari, alertze sotil, gaztainondo gaztigatuak: “Nik horri esaten nion buelta bat ematea, baina antza denez zera japoniar bat da, eta deitu behar zaio baso-bainua”. Zergatik basoratu, baina? Harra-paringandik defendatzeko, unea iritsita zeure buruagandik, bilatzen baituzu basoaren sakontasuna, ibiltzen baituzu galdu nahian, edo galdutzat eman zaitzaten, baina salbu, zerengandik salbu, zeure buruagandik. Ez dago, ordea, hori ezkutatzeko bezain baso trinko, itxi, sarririk. “Nire basoratzea”, dio Sánchez-Ostizek, “betekada, txotxongilo sentimendu, garai koipeztu baten ondorio da”. Nahiz jakin, benetan basoratzea, benetan bazterreratzea –eta ez orain mundu guztiak aldarrikatzen duen bazter zentriko hori–, Thoreauk egin bezala Walden mitiko hartan, fantasia bat dela beste ezer bainoago.

Basoa, beraz, aspaldi gordeleku, gero beldurgune, gaur egunean orotariko aisitoki –trekking, quad, mountain bike–, Senekaren harekin geratuko nintzateke: arrastorik ez utzi, saiatu ezabatzen, ezkutatzean egiten duten bezala basoko animaliek. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Abortua

Espainiako Abortuaren Lege erreformaren zirriborroa onartu dute. Hileko mingarriagatik emakumeek hiru eguneko gaixo-agiria eduki ahaliko dute eta 16 urtetik gorako andreak ez dute gurasoen baimenik beharko abortatzeko. Hilekoaren produktuei BEZa jaistea, baina, ez du jaso azkenean erreformak.

Bretoiera

Ar Redadeg abiatu dute, “Bretainiako Korrika”. Maiatzaren 20an hasita, 2.022 kilometro egingo dituzte, Gwitreg herritik Gwened herriraino. 2008an sortua, bretoiera sustatzea eta horretarako dirua biltzea ditu helburu. Oarsoaldeako AEK-k antolatuta, ordezkari bat joango da hara atxikimendua ematera.

Literatura

Maiatzaren 27tik 29ra izango da aurtengo Literatura. Askotariko ikuskizunak eta mahai-inguruak egingo dituzte Zarauzko euskal letren plazan. Aurten, “Piztia” hautatu dute ekimenaren gai gisa, eta hortik tiraka idatzitako manifestua irakurriko du Ana Malagonek, asteburu literarioari hasiera emanez.